

B

BARREN

TOKIKOM

Begirada bat azken 25 urteei

Edu Arrillaga, argazkilaria





Inma
Mugertza

Kezkatu samar nabil azken boladan plastikozko botiletan kontsumitu arazten diguten urarekin. Taberna batzuetan iturriko ura eskatu eta trabak jartzen dizkigute. Batzuek osasun kontua dela esanez, eta gehienek pitxerrik ez dutela esanez. Hori ikusita, Ura-

ren Euskal Agentziak, beste erakunde batzuekin batera, Donostian pitxerrak banatu ditu iturriko uraren kontsumoa bultzatzeko (<http://www.ekogunea.net/ekomunikazioa/bideoak/grifotepia/orria/>).

“Kezkatuta nago plastikozko botiletan kontsumitu arazten diguten urarekin”

Ur metro kubiko batek (1.000 litro) 1,05 euro inguruko prezioa du Euskal Herrian. Hortaz, iturriko ur litroko 0,001 Euro (0,1 zentimo) inguru ordaintzen dugu. Euskal Herriko ura oso kalitate onekoa da, eta, kasu guztietan, jatorri ezagunekoa, zati bat urtegietatik (Añarbe, Ibiur...) eta beste bat lurrazpitik (Izarraitz, Jaizkibel, Elduaien...) datorelarik. Hala ere, prest gaude 1,5 euro ordaintzeko (iturriko uraren prezioa baino 1.500 bider gehiago) jatorri ezezaguna (Estatu Batuetan ikusi denez, plastikozko bitiletako uraren %90 iturrikoa da) eta zailantzezko kalitatea duen (<https://www.youtube.com/watch?v=1gJhLv4nJ7s>) plastikoa datoren ur litro baten truke.

Kontuan izanda plastikozko ur botila batek 15 zentimo (0,15 euro) inguruko kostea duela, argi dago irabazia. 15 zentimo horietatik urari dagokiona ia hutsa da, %0,01a baino gutxiago (botila 10,5 zentimo; garraioa 1,5; soldatak 1,8; tapoia eta etiketa 1,19). Litro bateko plastikozko botila bat egiteko 10 litro ur behar dira. Estatuan urtero lau mila milioi plastikozko botilatik gora zabortegira doaz. Garestia eta ez ekologikoa.

Aurrerantzean zer? Norberak ikusi behar.



Ander
Izagirre

Zenbat egi, Inma. Hasteko, eskerrik asko emandako informazio loturengatik. Zuk aipatutako bideoa ikusten hasi eta bata bestearen atzetik gehiago ikusten jardun berri dut. Eta ikusitako guztitik, zuk aipatu ez duzun kontu batekin gelditu naiz, osasunarekin zer ikusi handia duena.

Botilaratutako ura edatea garestia eta ez ekologikoa dela diozu. Baina osasunari begiratzen badiogu? Ez al da botilako ura askoz osasungarriagoa? Hau izan da behintzat azken hamarkadetan saldu digutena. Baina egia izango ote da? Edo interes ekonomikoen ondorioz, botilaratutako uraren fabrikatzaileek iragarki faltsuen bidez zabaldutako gezur bat ote?

“Botilaratutako ura edatea garestia eta ez ekologikoa dela diozu. Eta osasungarria da?”

Aditu batzuk hasiak dira botilako uraren arriskuez ohartarazten. Itxura denez, botilaren plastikotik uretara transferitzen diren kutsatzailetan dago arazoa. Esaterako, Alemanian egindako ikerketa batzuen arabera, botilak egiteko oso arrunta den PET plastikotako antimonioa uretara transferitzen da ura botilaratu eta ordu gutxira, ura 18 °C-tik gora egon ezker, hau da giro-tenperaturan. Fabrikatzaileek diotenez, ordea, urak jasaten duen kutsadura hori baimendutako parametroen barruan dago. Hala ere, arriskuaz ohartarazi nahi digutenek hainbat plastikoz egindako botilak ez erabiltzea gomendatzen dute. Horren informazioa botilaren azpian egon ohi den triangulu barruko zenbakiak ematen digu (seguruenak 2, 4 eta 5 omen dira).

Nik egindako ariketa berbera gomendatzen dizuet zuei. Inmak proposatutako bideotik hasi, saltseatu pixka bat eta norberak hausnartu eta baloratu dezala. Gure etxeetako iturriko uraren kalitatearen zalantzarik ez izan behintzat!



BARREN astekaria

KAZETARIEN LAN POLTSA BETETZEKO DEIALDIA

Eskatzen da:

- Kazetaritzan lizentziatua izatea (edo ikaslea) edo eskarmentua sektorean.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea
- Euskara maila altua, idatziz zein ahoz.
- Teknologia berrien ezagutza.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.

Curriculumak bidaltzeko azken eguna
MAIATZAK 30

Bidali honako
helbide honetara:

E-posta:
barren@elgoibarkoizarra.com
(Ainhoa)

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Amedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Danele Sarrugarte, Mikei Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

'Txillarretik Aietera' Elgoibarren

Film benetan gomendagarria maiatzaren 8an Ongarri zineklubarekin batera eskaini genuena.

Azken hamar urteotako euskal gatazkaren bilakaera jaso dute filmean, iritzi desberdinetako hamazazpi pertsona esanguratsuren testigantzekin osatua.

Kalitate handiko filma da berez, baina badi-tu nabarmendu beharreko beste hiru ezaugarri ere: sentsibiltatea, perspektiba, boteretik inposatu nahi den tesi ofiziala zalantzan jartzea eta Arnaldo Otegiaren protagonismo itzela bakerako bidean.

Eskerrik asko eman eta zorterik onena opa diegu gurekin izan genituen eta filmaren zuzendari eta ekoizle diren Arturo eta Andrea gazte kataluniarrei. Eskerrak, baita ere, Herriko Antzokira gerturatu zineten 110 herrikideoi.

Arnaldo Askatu,

Politika Askatu Herri Ekimena

Arnoren magia

Pasa den igandean, maiatzaren 11n, Mendaroko Ludotekako haurrek eta Gaztelekuko gazteek ardatz nagusi Arno zuen ikus-entzuteko jaialdia eskaini zuten.

Aurrez makina bat orduko lana egin ondoren, igandean eskaini zuten ikuskizun ederraz gain, besteak beste euren konpromiso, ilusio, motibazio, talde-lan, sormen, eta herriarekiko elkarlanaz gozatzeko aukera eman ziguten.

Mendaron altxor ugari ditugu, eta horietako bat Arno mendia da. Hori goraiatzeko asmoz sortu zitzaigun igandeko ikuskizunerako ideia, baina benetako altxorra haur eta gazte hauen ilusioan eta gauzak adierazteko gogoan aurkitu dugu.

Eskerrik asko proiektu honetan parte hartu duzuen pertsona eta elkarte guztioi, baina bereziki zorionak haur eta gazteoi, zuetaz harro egoteko moduan dago Mendaroko herria; gu behintzat bagaude.

Hezitzaileak

Eskerrik asko, Mendaro

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu larunbateko Gure Esku Dago eguna gurekin batera ospatu zenuten guztioi, eta baita

ere, jakina, herrian jai-giroa jartzen lagundu zeniguteno. Mila esker, beraz, Mendaroko Udalari, Bizi-Poza txarangari, Mendaroko herri-kirol taldeari, herriko trikitilari taldeari, Aitzol Urain, Asier Lazarobaster eta Andoni Zubiaurre bertsolariei, Inozentzio pailazoari, Atracciones Sanzi eta Gazte Asabladari. Hau ez da bukatu, baina. Gutxi falta da ekainaren 8rako, eta ez dezagun olatua galdu. Jarrai dezagun erabakitzeo eskubidearen alde elkarrekin lanean. Gaur, ostirala, herriko plazan izango gara berriro, giza-katerako metroak saltzen. Erosi zure metroa, eta zatoz gurekin Bergarara. Ez zara damutuko. Egun handia izango da.

Mendaroko Gure Esku Dago batzordea

Eskerrik asko

Morkaiko Mendizale Elkartearen izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu larunbatean Morkaikoren Egunean parte hartu zenuteno. Lagundu zeniguteno banan-banan eman nahiko genizueke eskerrak, baina eskutitz honetan ez dago leku nahikorik. Zuek gabe ezinezkoa izango litzateke. Beraz, eskerrik asko bihotz-bihotzez lagundu zeniguteno.

Laugarren aldiz ospatu dugu Morkaikoren Eguna formatu honetan, eta urtetik urtera hazten doa. 600dik gora lagun izan zarete egun honetan parte hartzen, tartean 160 ume inguru. Pozez betetzen gaitu gero eta haur gehiago ikusteak, etorkizunean beraiek zainduko baitutuzte gure mendiak eta denon artean gizarte osasuntsuagoa osatzen ari garelako, kirola gure bizitzako parte eginaz.

Zorionak, beraz, denoi eta eskerrik asko berri ere.

Morkaiko MEko zuzendaritza

Erretratu zaharra



1977

Aste honetako erretratu zaharra Bittori Goenagak lagatakoa da. 1977. urte inguruko erretratua da, eta urte hartako santa eskean aterata dago. Orduan ere ibiltzen ziren hainbat herritar eskean, eta Txankakoako zubian atera zuten argazki hau, kalejiran irten aurretik. Argazkian ageri den ikurrina Bittorik berak josi zuen, eta hori izan zen ustez Elgoibarren bistaratu zen lehenengoa. Gogora ditza-gun zein diren argazkian ageri direnak: **Goian:** Patxi Garcia, Anjel Etxabe, Alberto Gurrutxaga (†), Jose Ramon Soraluze, Jose Antonio Blanco (†), Jose Antonio Murua, Gerardo Garate (†), Jose Luis Arriola (†), Jose Javier Arregi. **Makurtuta:** Rogelio Vela (†) eta Jose Luis Prado.

I. URTEURRENA

JULIAN AGIRREGOMEZKORTA IRASTORZA



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*



2013ko maiatzaren 17an hil zen, 69 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 17an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.

Etxea galtzeko arriskuan dauden familiei laguntzeko plan integrala eskatu du Debabarrenako Etxe Kaleratzeak Stop-ek

41 familiari eskaini die elkarteak babesa eta aholkularitza urtea hasi zenetik hona

Urtea hasi zenetik gaur arte egin duten lanaren balorazioa egin du Debabarrenako Etxe Kaleratzeak Stop elkarteak eta larri dauden familiei laguntzeko plan integrala eskatu eta gizartearen esku-hartze handiagoa aldarrikatu ditu, egoera hau iraultzeko. Urtarriletik hona, hipoteka ordaindu ezinagatik etxea galtzeko arriskuan egon daitezkeen 41 familiari eskaini die aholkularitza eta babesa elkarte honek, eta hipoteken IRPH indizeak kaltetutako 24 familia atenditu ditu. [IRPH siglek hipoteka maileguen erreferentziatzko indizia esan nahi dute gaztelaniaz, eta kreditu erakundeek etxebizitza libreak erosteko emandako hiru urtetik gorako hipoteken batez besteko interesen tasatik atera-

tatako indizea da]. Nolanahi ere, Kaleratzeak Stop-etik jakinarazi dute lanik handiena dagoeneko epaitegietara iritsitako zazpi kasu eman dietela. Zazpi kasu horietako hiru kasu gelditzea lortu dute, neurritz kanpoko klausulak aplikatu dizkietela arrazoituta; bi kasutan prozesu judiziala gelditzea lortu dute, negoziazioaren bidetik akordioak lortuta. Beste "lorpen" batzuk ere izan dituzte, baina. Hipoteka zor zuten bi familiari zorraren ordainetan etxea bera ematea onartu zieten, talde honek egindako bitartekaritza lanari esker, eta era berean, Euriborra jaitsi izanaren onurak jasotzea eragozten zieten zoru-klausulak kendu zizkieten beste lauri.

Beharra dutenei aholkularitza eta babesa eskaintzea izan da azken batean tal-

de honen ardurua nagusia. Larri ikusi dituzten familia bat baino gehiago bideratu dituzte tokian tokiko Gizarte Zerbitzuetara eta udaletxe, epaitegi, Lanbide, Alokabide eta gainerako erakundeetara ere lagundu diete. Kalera ere irten dira egoeraren larriaz ohartaraztera eta ezinean dabiltzan familientzako bitarteko gehiago eta laguntza handiagoa eskatzeko. Horren harira, lege aldaketa bat aldarrikatu dute, eta kargu hartu diete erakundeek zein herritarrei. Hipoteka ordaindu ezinagatik egoera itolarrian egotera edonor iritsi daitekeela ohartarazi dute eta beste aldera ez begiratzeko esan diete herritarrei. Irteteko kalera, eta salatze, neurritz kanpoko klausulak sinatu arazten dituzten erakundeen kontrako borroka denon borroka delako.

Unai Villena, Asier Olabarrieta eta Asier Gomezen sormen lan bat saritu dute Bilboko Udalaren 'Ideiak martxan' lehiaketan



Bilboko gazteen eta kolektibo gazteen sormen-ekimenak lagundu, eta aldi berean, Bilboko bizitza soziala eta kulturala aberasteko asmoz sortu zuen Bilboko Udaleko Euskara eta Gazteria Sailak *Ideiak martxan* lehiaketa, eta orain eman dituzte jakitera sarituen izenak. Tartean, bada bat, *Hiri asko bere baitan* izenekoa, zeinean bi elgoibartarrek parte hartzen duten: Unai Villenak eta Asier Olabarrietak, elgoibartutako bilbotarrak. Asier Gomez da hirugarren taldekidea. Proiektuak berak hiru ardatz dauzka: literatura (euskarazkoa), musika eta argazkigintza, eta Unai Villenak berak azaldu duenez, proiektu honen bidez Bilbo hiriaren ikuspegi berria eman nahi dute.

Horretarako, Bilboko barruti bakoitzeko (zortzi dira guztira) lan bat aurkeztu asmo dute azaroa bitartean. Hiruren artean, zortzi argazki-testu-musika-lan edo obra sortuko dituzte, eta obra horiek formatu ezberdinetan emango dituzte ezagutzera: virtualki (blog batean eta liburuxka digital batean) eta fisikoki (ikus-entzuzko emanaldi baten bidez, argazki erakusketa batean eta liburuxka+CD batean). Blog bat ere badute *Hiri asko bere baitan* proiektuaren sortzaileek, eta hor, hilabetero obra bat argitaratuko dute [<http://hiriaskoberebaitan.com>]. Twitter eta Facebook sare sozialetan ere egongo dira, azken batean jendearen parte-hartzea bilatzen dutelako, "ezagutzak partekatzea eta iritziak trukatzeko".

Zinema 'Ateak zabalduz' dokumentala

Juanmi Gutierrezek (Errenteria, 1945) zuzendutako *Ateak zabalduz* dokumentala eskainiko du Ongarrik maiatzaren 22an Herriko Antzokian (21:30), Elgoibarko Prekarietatearen kontrako taldeak babes-tuta. Juanmi Gutierrez ezaguna da Elgoibarren, aurrez ere etorria delako *Mur-mur* preso sozialen inguruko bere azken lana aurkeztera.

Bere hamahirugarren film luzea du hau, okupazio mugimenduari eskainitakoa. Okupatzaileei buruzko aurreiritziak hautsi nahi ditu Gutierrezek lan honekin. *BERRI*Ari eskainitako elkarrizketa baten zioen ezagutzen zituela okupatzaile izan ziren edo diren pertsona batzuk eta haiek transmititzen zioten pozak eraman zuela hein handi batean gai hau lantzerara. Okupazioa bizimolde utopikotzat dauka berak, baina uste du ez dela ez deabrutu eta ez baztertu behar. Azkeneko urteotan hainbat dokumental sozial egin ditu Gu-



tierrezek, eta hilaren 22an bera etorriko da Elgoibarrera, azken hau aurkeztera.

Izena Juan Cordero Castaños



Juan Cordero Castaños hil da, musikari, konpositore eta orkestra eta banda zuzendari izandako elgoibartarra. Martitzenean hil zen Castellonen, 86 urterekin. Musikako goi ikasketak egindakoa zen Cordero, eta rekintoa jotzen zuen. Bilboko Garellano bandako zuzendaria izana zen eta hainbat orkestra sinfoniko zuzendu izan zituen. Konpositore gisa ospe handiko hainbat sari eskuratu zituen bere bizitzan zehar, besteak beste 11 sari nagusi Tolosako Abesbatzen Nazioarteko Jaialdian. 1985. urtean *Kontzejupe* obra konposatu zuen eta urte horretako azaroaren 24an estreinatu zuen Odeoi antzokian, Elgoibarko Bandaren mendeurreneko ospakizunetan. Berak zuzendu zuen egun horretan udal musika banda, eta ordukoa da argazki hau ere.

Zabaldute Inersoko oporraldirako izena emateko epea

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi du zabaldute Inersoko oporren programarako izena emateko epea. Interesatuak ekainaren 5a arteko epea dute eskaera orriak aurkezteko. Eskaera orriak udaletxean, Ongizate Sailean, edo Jubilatuen Egoitzan eskuratu daitezke.

'Umorea literaturan' izenburuko tailerra, maiatzaren 20 eta 22an

EHUko Psikologian lizentziatua eta UNEDeko irakaslea den Jose Domingok umorea literaturan izenburuko bi hitzaldi eskainiko ditu maiatzaren 20 eta 22an Elgoibarren, Esperientzia Eskolaren barruan. 50 urtez gorako elgoibartarrentzako tailerrak izango dira. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira saioak, 10:00etatik 12:00etara.

Emeki eta Ameikutz abesbatzen kontzertua, Mendaron, hilaren 23an

Markinako Emeki eta Mendaroko Ameikutz abesbatzek kontzertua eskainiko dute maiatzaren 23an, barixakuan, Mendaroko San Agustin kulturgunean (22:00). Bestalde, Ameikutz musika eskolak jakinarazi du Ondarroa, Bermeo eta Mendaroko musika eskolako ikasleek Rock kontzertua eskainiko dutela maiatzaren 25ean, San Agustin aretoan. 18:30ean hasiko da, eta sarrerak han bertan eskuratu beharko dira.

Txankakuaren zozketa

Txankakua merkatari elkarteak 1.200 euro zozketatuko ditu guztira maiatzaren 15etik 30era Txankakuako txartelarekin ordaintzen duten bezeroen artean. Erosketa egiteko unean bertan jakingo dute bezeroek sarituak izan diren edo ez. 5 eta 10 euroko erosketa baleekin sarituko dira bezeroak.

EDU ARRILLAGA

ARGAZKILARIA

**“Sentimenduak
irudikatzea gustatzen zait
eta horretarako
denbora behar da”**

Azken 25 urteotan egindako argazkiak argitaratzea erabaki du Edu Arrillagak. Argazki gehienak umeeke parte hartzen duten ekintzetan egindakoak dira, baina badira tartean sokamuturrean ateratako argazki ikusgarri asko ere. Erretratu horiek Pilon tabernako erakusleihoan edo www.elgoibart.com webgunean ikusi daitezke. Gustukoa aukeratu eta Pilonen bertan egin daiteke eskaera. Formato txikiko erretratuak eta artxibo digitalak 5 euro balio ditu, eta tamaina handikoak 15 euro.

Azken 25 urteetako erretratuak argitaratuko dituzu Elgoibart izeneko proiektuaren barruan. Nolatan?

Herritarrei eginiko promesak bete behar nituelako hasi nintzen lan honetan. 25 urtean ateratako argazkiak dira, eta jendeak beti galdetzen zidan argazki horiek noiz ikusiko zituen, baina orain arte ezin izan ditut atera.

Zergatik orain?

Oso berandu iritsi nintzen mundu digitalera. Orain dela pare bat urtera arte analogikoan lan egin dut, eta ez nuen ezer jakin nahi digitalari buruz. Lagunek esanda animatu nintzen 2013an digitalerako jauzia ematera, eta konturatu nintzen sistema digitalak argazkiak ikusteko eta erakusteko aukera handia ematen duela. Horrez gain, negatiboak eskaneatzeko aparailua erosi nuen Estatu Batuetatik, eta azken urteetako erretratuak digitalizatzeari ekin nion. Gordeta neukan material hori guztia ateratzeko aukera sistema digitalak eman dit. Ez nuen nahi nire lana kajoian hiltzea.

Zer ikusiko dugu argazki horietan?

Elgoibarko irudiak aukeratu ditut, eta elgoibartarrak dira protagonistak, umeeke bereziki. Umeek asko gustatzen zaizkit, eta umeeke parte hartzen duten ekintzak ageri dira argazki gehienetan. Umeen keinuak, irribarreak... Umeek asko transmititzen dute. Gaiztakeria asko egiten dizkirate argazkiak ateratze-

rakoan, baina pazientzia apur batekin lortzen dut euren konfiantza. Euren espazioan sartzen naizenean ez dira eroso sentitzen, baina denbora pasatu ahala ahazten dira nitaz, eta orduan ateratzen dira argazkiri onenak. Dena dela, badaude gazteak edota helduak ageri diren beste ekintzak asko ere. Horrez gain, sokamuturreko liburuan sartu ez nituen ehun bat irudi argitaratuko ditut. Liburuan 50 argazki bakarrik kabitzen ziren, eta asko baztertu nituen. Zezena baino gehiago, sokamuturrean parte hartzen duten herritarrak dira protagonista.

Hainbeste argazkiren artean aukeratzea ez zen erraza izango. Nola egin duzu aukeraketa?

Oso zaila da argazkiak aukeratzea. Batetik, niri gustatzen zaizkidan argazkiak daude, baina horietako gehienak ez dira izaten jendeari gustatzen zaizkionak, aurpegirik ikusten ez delako, edo protagonistak duen keinua ez delako bere gustukoa, edo beste edozergatik. Argazki horiek, beraz, neuretzat gordetzen ditut. Eta beste argazkien artean, hau da, jendeari gustatzen zaizkion horien artean nire emazteak laguntzen dit aukeratzen. Berari atentziora ematen ez dizkioten argazkiak zuzenean baztertzeko ditugu. Azken batean proiektu honek helburu ekonomikoa ere badauka, eta argazki salgarrienak direnak aukeratzen saiatu gara.

Krisiari aurre egiteko sormena beharrezkoa dela diote adituek. Zure kasuan, krisiak izan al du eraginik?

Izugarría. Tabernako lanari esker finantzatu izan ditut argazkiak ateratzeko bidaia, eta azken lau urteotan ezin izan dut bidairik egin. Egitasmo honi esker gustatuko litzaidake diru apur bat lortzea, argazki erreportaje gehiago finantzatzeko. Adibidez, tabernan langile bat jarri ahalko banu, nik argazkiak egiteko denbora gehiago izango nuke, baina une honean tabernak ez du diru askorik ematen. Elgoibart egitasmoa aurrera eramateko ere pentsatu genuen lokalen bat hartzea argazkiak erakusteko, baina azkenean tabernako erakuslehiara aprobetxatu dugu, lokalak inbertsio handia eskatzen zuelako.

Zenbat denbora behar izaten duzu zure gustuko argazkiak ateratzeko?

Askok. Argazkiak azkar ateratezke, eta gaur egungo kamarek aukera azkarrak eskaintzen dituzte, baina niretzat argazkigintza prozesu pausatua da, eta argazki on bat ateratzeko beste txar pila bat ateratu behar dira. Hasieran ateratzen diren argazkiek ez dute ezertarako balio. Nik ezingo nuke prentsan lan egin, esate baterako. Argazki bat ateratu, eta presaka erredakziora joan notizia emateko ezinezkoa izango litzateke niretzat. Niri notiziatik harago joatea gustatzen zait, sentimenduak irudikatzea gustatzen zait, eta horretarako denbora behar da.

Zergatik aukeratzen duzu beti zuri-beltza?

Koloreak arreta galduta arazten didalako kentzen diot kolorea. Kolorezko irudiak ateratzeko kontzentrazio handia behar da, eta nahiago dut zuri-beltza. Sentimenduak irudikatzea gustatzen zait, eta horretarako zuri-beltza egokiagoa dela uste dut. Argazkiak ateratzerakoan saiatzen naiz kolorean ez erreparatzen. Eszena, mugimendua, keinua edo sentimendua bilatzen dut, ez kolorea. Nik irudiak zuri-beltzean ikusten ditut.

Herrian antolatzen diren ekintza askotan ikusten zaitugu. Zein da argazkiak ateratzeko gogorrena?

Txiki Eguna da, dudarik gabe, argazkiak ateratzeko ekitaldirik zailena.

Errosario kalean sartzea oso gogorra da. Bultzakadak, ura ardoa... denetarik jasan behar izaten da. Iaz, esaterako, baldekada ur erori zitzaidan gainera, eta bizilaguna barkamen eske etorri zitzaidan. Esan nion ez zeukala barkamena eskatu beharrik, neu nengoela han eta banekielan egun horretan zer zegoen. Kamera asko hondatu izan zaizkit Txiki Egunean. Gogorra da eguna, baina aldi berean, sekulako argazkiak ateratezke. Jendea pozik dago, festa eguna da gazte zein helduentzat eta egun horretan lasai jartzen dira denak kamera aurrean. Erreka jaitsiera ere zaila da. Kolpe asko hartzen dira, eta iaz erori egin nintzen. Kamera eta guzti ur azpian geratu nintzen, eta altxatzen lagundu behar izan zidaten.

Zenbat aldiz joaten zara ekintza bakoitzera?

Erreportaje bat egiteko behar dudana material guztia batzeko askotan joan beharra dago. Kontuan izan ekintza batzuek urtean behin dira, eta ordu gutxi batzuek iraupena izaten dutela. Erreka jaitsiera, esaterako, bi orduko kontua da eta ezin izaten naiz beti nahi dudana lekuan jarri. Angeluak, argia, fondoa... gauza asko zaindu behar izaten dira, eta bi orduan ez dit ematen dena ateratzeko aukerarik.

Protagonista baino garrantzitsuagoa da askotan fondoa, eta atzean etxe zaharren bat, edo zuhaitzetako zinkeria badago, argazki txarrak ateratzen zaizkit. Txiki Egunean argazkiak ateratzen sei urte daramatzat, eta sokamuturreko erreportajea egiteko hamar urtez ibili nintzen argazkiak egiten. Urteak urtera joaten naiz ikusten zer falta zaidan, eta materiala osatzen joaten naiz.

Hemendik aurrera, zein proiektu dituzu eskuartean?

Txiki Egunean eta Mugertza Kroseko irudiak momentuz Elgoibart egitasmotik kanpo laga ditut, bi ekintza horiek erreportaje bereziren bat egin nahi dudalako. Lan sakonak dira, eta hemendik hiru edo lau urtera gustatuko litzaidake argazki horiek argitaratzea. Kroseko argazkiak ateratzen orain dela sei urte hasi nintzen, baina kontuan izan urtean goiz bateko egun bat dela. Ordu gutxi dira niretzat. Krosaren beste aurpegi bat irudikatzen saiatuko naiz. Nik ez dizkiet korrikalariei apenas argazkirik ateratzen. 8:00etarako joaten naiz Mintxetara eta antolatzaileen lana jasotzen dut. Krosa amaitu ostean ere han geratzen naiz. Iaz lagun batek parte hartu zuelako helmugan egon nintzen berari argazkia ateratzeko, eta nire laguna iritsi baino apur bat lehenago korrikalari bat zorabiatu zen nire aurrean. Balantzaka zetorren, eta helmugako marraren gainean erori zen lurrera. Nahigabe, nolabait esateko, sekulako argazkia ateratu nuen. Txiki Eguna ere itzela da. Erreportaje hori beste jai egun batzuetako argazkiekin batera osatzea gustatuko litzaidake. Tomatina edo Errioxan egiten den Ardoaren Festa egunak, esaterako. Nik kolorea kenduko diet, jakina, beraz, ikuspegi humanoan lantzen saiatuko naiz. Horrez gain, sokamuturrearen liburuaren formato berean, Txiki Eguna eta Mugertzari Krosari buruzko liburu argitaratu nahiko nuke, nolabaiteko trilogia bat osatzeko. Nire ustez hiru ekintza horiek oso bereziak dira Elgoibarren.

“Txiki Eguna da,
dudarik gabe,
argazkiak ateratzeko
ekitaldirik zailena”



Pintxo lehiaketak eta Gure Esku Dago egunak jaiko jantzi zuten Mendaro asteburuan

Uztargik irabazi du pintxo lehiaketa, eta Menditxoko pintxoak izan da herritarren gustukuena

Asteburu biribila izan dute azkeneko hau Mendaron. Udalak antolatu ohi duen pintxo-lehiaketak eta Gure Esku Dago eguneko ospakizunek bat egin zuten zapatuan, eta domekan, herriko 50 bat gaztetxok Arnoren inguruko ikuskizunaren bi saio eskaini zituzten, eta bietan bate egin zuten San Agustin kulturgunea. Txarangak hasi zituen zapatuan Gure Esku Dago eguneko ospakizunak, eta herri-kirol saioaren ondoren, ume zein nagusi, 150dik gora lagun elkartu ziren frontoian, herri-bazkarian. Inoxentzio pailazoak, bertsolariek eta trikitilariak girotu zuten bazkalostea, eta hurrengo eguna argitu arte luzatu zuten eguna mendaroarrek. Gauean, errifaren zozketa egin zuten Gure Esku Dago taldekoek, eta 807 zenbakia irten zen sari-tu. Txomin Longarte mendaroarrak jaso zuen saria: Debako Aisia Kresala talasoterapiari bi lagunentzako zirkuitoa eta masa-je lasaigarria. Pintxo lehiaketan, berriz, Uztargi tabernak jaso zuen lehen saria, eta Menditxo tabernako pintxoak izan zen herritarren gustukuena.





Arrillaga inprenta: 1950etik, hiru be

Ezkontza bat ondo iriteteko mila kontu zaindu behar dira: jantziak, jateetxea, orrazkera, eraztunak, bidaia... Baina ezin dira inola ere gonbidatuak ahaztu. Haiiek izango dira norberaren ezkontzari kolorea eta alaitasuna emango diotenak, eta oso garrantzitsua da gonbidapenak ondo egitea. Ez dakizula nondik hasi? Arrillaga inprentan emango dizkizute beharrezko dituzun aholku guztiak.

Alfredo Arrillagak sortu zuen inprenta 1950ean, eta gaur egun Arrillagataren hirugarren belaunaldiak dihardu lanean. Pedro Arrillaga eta Maite Olamusu senar-emazteek kudeatzen dute inprenta gaur, Josu eta Luis semeekin batera. Pedro makinista da, eta erretiroa hartzen duenean Luis semeak hartuko du haren lekukoa. Josu diseinatzaile grafikoa da, eta diseinu lanez arduratzen da. Maite administrazio kontuen arduraduna da. Familian lan egitea gustuko dute, eta horrek indartu egiten ditu. Oso ondo bereizten dituzte etxe



Maite Olamusu eta bere bi semeak, goian: Josu eta Luis, eta behean, inprentan egindako lanetako batzuk.



Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

Ilea zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30
Elgoibar
Tele.: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak

www.peluqueriajoseantonio.com

auinaldi lanean

eta laneko kontuak, eta ez dituzte nahasten. Oso ondo kontuzten dira laurak, eta elkarrekin lan egiteak familia-harremana sendotu egin du.

Medikuntza ikasten hasi zen Alfredo Arrillaga, baina hura ez zen bere bokazioa eta gurasoek inprenta jarri zioten, ofizioa ikasi eta lanean hasteko. Plaza Handiko lokal batean ekin zion Alfredok negozioari. Eliza ondoan zegoen inprenta, Plaza Txikirako bidean, eta hantxe egon zen Leku Eder parkea egin zuten arte. Orain dela 20 bat urte, beraz, plazako lantegia itxi eta Trenbide kalera lekualdatu zuten enpresa. Urte gogorak izan ziren haiek, eta enpresa ixtear ere egon ziren, baina aurrera egitea erabaki zuten. Urte gogor haietan Jose Valdemosen babesa izan zuten, eta Maitek eskerrak eman nahi dizkio Arrillaga familiakoen partez, inprentan egindako lan guztiagatik.

54 urtean inprentako lana izugarri aldatu da. 1950. urteko inprentak ez zeukan egungoarekin zerikusirik, baina lan pila bat egiten zituzten. Dena analogikoa zen, eta fotolito guztiak Donostiara bidaltzen zituzten filmatzeko. Gaur egun, ordea, dena digitalean egiten da. Garai gogorak bizi izan ditu inprentak, baina familia adoretua da Arrillaga sendia, eta baikorrak dira. Makina digital berria ekarri dute orain dela gutxi, eta etorkizunari ilusioz begiratzen diote.



Jasone
Zerbitzu Grafikoak

Sartu, aukeratu eta eramán itzazu!!

San Ignazio, 1 • ELGOIBAR
Tel.: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com
www.jasonesg.com



AGURTZANE c.b.

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ileapaindegia



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel.: 943 741 189



AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310

HIDRODEPURAZIOA
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektriko eta argizaritzkoa) - Mikropigmentazioa




ARAMBURU
BIXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

Partaidetza marka guztiak hautsi ditu Morkaikoren Egunak

Jendetza batu zuen zapatuan Morkaikoren Egunak, eta orain arteko partaidetza handiena izan zuen. 600dik gora lagun ibili ziren guztira Elgoibarko mendietan zehar. 280 lagunek egin zuten Mendi Itzulia, eta Itzulitxoan, berriz, 325 ume eta gurasok hartu zuten parte. Horrez gain, ehundik gora umek jaso zituzten Finalista Eguneko dominak. Aurten, Sabin Txurruka eta Jabier Etxanizek banatu zizkieten dominak. Urtetik urtera gora egin du partaideen kopuruak, eta aurten ere eskuak bete lan izan dituzte mendi taldeko kideek. Giro ezinhobean ospatu zuten, beraz, mendizaletasunaren jaia. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net



Elgoibar Ikastolako DBH3ko ikasle talde baten lana saritu dute Kosmodisea sariketan

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen du sariketa, balore ekintzaileak sustatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako departamenduaren ekimenez antolatzen den sariketa da Kosmodisea eta ez da aurreneko aldia ikastolako ikasleek parte hartzen dutena. "Pertsona ekintzailea izateko balioak eta trebetasunak" bultzatzen dituen lehiaketa da, eta aurten, Elgoibar Ikastolako lau taldek hartu dute parte: LH5 eta DBH3ko lau taldek. Horietako batek, DBH3ko Natzotzipotatzo taldeak lehenengo saria eskuratu du. LH5koen Kosmogalaxy taldea, berriz, seigarren sailkatu da, LH5koen Kosmoplanet taldea zortzigarren eta DBH3ko Euskal Lemingak taldea seigarren. Argazkian, Kosmodisean parte hartu duten ikasleak, Ikastolako atarian egindako argazkian.



Txistularien alardea egingo dute zapatuan Elgoibarren

Txistularien alardea antolatu du Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolak biharko, hilaren 17rako. 12:15ean irtengo dira kalejiran eta ondoren, 13:00etan, kontzertua eskainiko dute San Bartolome parrokian. Eibar, Ermua, Deba, Mendaro, Azpeitia, Aretxabaleta, Arrasate, Barakaldo, Gasteiz eta Elgoibarko txistulariek, Haritz dantzari taldeak, Inazio Bereziartua musika eskolako dantzariak eta Metal boskoteak eta Marimbak, eta lau abesbatzek parte hartuko dute ekitaldian.

IMH, zure herrian, zure aukera

UNBERTSITATE ESKOLA

DBH Ondoren?
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
(2 urte) eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

BATXILERGOA
Amaitzean? **GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA** (2 urte) eta lanera edo ikasten jarraitu...

... goi-mailako **Heziketa Zikloa** amaitu ondoren edo Batxilergoaren ondoren: **INGENIARITZA DUALA** (4 urte) ikasi eta lan alternantzian

Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

Goi-maila (DUALA ERE: 2. mailan)

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

GRADUA:

Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza

Informazio: **saioa** maiatzaren **24an, 11:00etan**

etortzeko deitu **943744132ra** edo apunta zaituz **www.imh.es** web gunean

Argazkilaritzari buruzko ikastaroa eskainiko du Esmeralda Zapparolik

Bi saio izango dira: domeka honetan eta hilaren 25ean

Argazkilaritzari buruzko oinarrizko ikastaroa eskainiko du Esmeralda Zapparoli argazkilariak Elgoibarren, Ongarri argazkilaritza taldeak eta ElgoibARTek babestuta. Bi saio izango dira: domeka honetan lehenengoa, maiatzaren 18an, eta maiatzaren 25ean bigarrena. Argazkilaritzari buruzko oinarrizko ikasgaiak irakatsiko dituzte: argazki kameraren funtzionamendua bera, abiadura, diafragma, ISOa, eta ikus-eremua moduko kontuen esanahia eta erabilera, JPG, TIFF eta RAW formatoak eta tarjeten erabilera, automatismoak eta erretratuak egiten eta paisaiak erretratatzeko.

Gehienez zortzi laguneko taldea onartuko dute, eta seina orduko bi saio izango dira (9etatik 12:00etara). Teoria eta praktika uztartuko ditu ikastaroak, eta Pilon Burgerren izango dira. Interesatuentzat kontakturako bi bide jarri dituzte: 656 716 034 telefono zenbakia eta ongarri@outlook.com posta elektronikoa. Izena emateagatik 50na euro ordaindu behar dira.

Elgoibarren jokatu da Plazatik Gaztetxerako finalurrekoetako bat

Aste honetan hasiko da Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa, Antzuolan, eta finalurrekoetako bat Elgoibarren jokatu da, maiatzaren 24an. Mutriku eta Debako saioetako irabazleak eta bigarren eta hirugarren sailkatuak lehiatuko dira. Beste finalerdia Markinan jokatu da, bezperan, eta finala, berriz, Sorluzen, maiatzaren 31n.

'Tribuaren Berbak' telebista saioan parte hartu du Elgoibarko Izarrako langile eta bazkide talde batek



Kike Amonarrizek aurkezten duen *Tribuaren Berbak* telebista saioetako Elgoibarren izan ziren joan zen astelehenean grabazio bat egiten. Grabazioan, Elgoibarko Izarra kultur elkarterako bost lagunek parte hartu zuten: hiru langilek eta bi bazkidek. Xabi Paya bertsolariak jarritako puntuari segika ipuin bat osatzen jarri zituzten bost lagunak eta umore onean joan zen saioa. Grabazioa maiatzaren 21ean eskainiko dute, 22:30ean.

Jasone Osoro idazlea omendu du Iruñeko Birudana Institutuak

Iruñeko Birudana Institutuak hamabost urte daramatza idazle bat omendu eta haren obraren irakurraldi publikoa antolatzen, eta aurten, Jasone Osoro idazle elgoibartarra omendu dute. Hala, Osororen testuak irakurtzen eman zuten joan zen ostiral goiza institutu horretako ikasleek eta gonbidatuek. Irakurraldi publiko horren bezperan, Jasone Osorok berak hitzaldia eman zuen Iruñeko Kondestablen. Bere ibilbide literarioaren eta pertsonalaren errepaso egin zuen Osorok, bere liburuaren azaletatik abiatuta.



Eritz Carcedo saritu dute Gipuzkoako eskolarteko bertsopaper lehiaketan

Elgoibar Ikastolako Eritz Carcedo ikasleak aipamen berezia jaso du Gipuzkoako eskolarteko bertsopaper lehiaketan, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailakoen saileran. Arrasaten jokatu da Gipuzkoako eskolarteko finala, maiatzaren 25ean, eta ondoren banatu dituzte sariak.



Xose Maria Diaz Castro idazle galiziarra omenduko dute gaur hasi eta domekan bukatuko dituzten galiziarren jaietan

Galiziako produktuak dastatu eta hango folklorea ezagutzeko aukera izango da Elgoibarren

Asteburu osoko jai-egitaraua antolatu du Galiziako kultur etxeak. Gaur, 19:30ean, hasiko dituzte jaiak, Aita Agirre plazan. Xose Maria Diaz Castro idazle galiziarra (Lugo, 1914-1990) omenduko dute aurten Semana Das Letras Galegas jaien barruan, eta inaugurazio ekitaldi horren ondoren, Galiziako muskuluak dastatzeko aukera izango da. Gauean, 20:00etatik 21:00ak bitartean, eta 23:00etatik atzera, Ritmo Joven orkestrak girotutako dantzaldia izango da leku berean.

Bihar 11:00etan hasiko dute eguna, Galiziako produktuen dastaketarekin. Ondoren, 12:00ak aldera, Laudioko Espalladoiro taldearen ekitaldia izango da feria gunean, eta Bermut-dantzaldiarekin itxiko dute goiz parteko egitaraua. Arratsaldean, 18:30ean, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek eta Laudioko Espalladoiro taldekoek ikuskizuna eskainiko dute, eta gauean, gaurko ordu berean, dantzaldia izango da Ritmo Joven taldearekin.

Domekan amaituko dituzte jaiak. Goizean, eguneroko dastaketa saioaren ondoren, meza izango dute San Bartolome parrokian Galiziako kultur etxeko hildako bazkideen omenez, eta ondoren,



Santurtziko Corxa Airiños Galegos gaita taldekoak kalejiran irtengo dira, herri bereko abesbatzak lagunduta. 14:30ean, berriz, Elgoibar-ko Galizia Kultur Etxearen egoitzan elkartuko dira denak, elkarrekin bazkatzeko, eta 20:00etan, aurten jaien amaiera ekitaldia egingo dute, Aita Agirre plazan.

Arnoren gaineko ikuskizunak jendetza handia erakarri zuen Mendaron



Mendaroko Ludotekako eta Gaztelekuko arduradunen ekimenez, Arnoren gaineko ikuskizuna prestatu zuten herriko 50 bat ume eta gaztek, eta domekan eskaini zuten jendaurrean. Bi saio eskaini zituzten, eta bietan bete egin zuten San Agustin kulturunea. Arte adierazpide ezberdinak uztartu zituzten saioan, eta fin aritu ziren gaztetxoak oholza ganean. 4 eta 12 urte artekoek parte hartu zuten, gehienak Ludoteka eta Gaztelekuko erabiltzaileak.

Maite Maiorak bigarren egin du Transvulcanian, bere lehen ultratrailean, eta onenen artean lekua duela berretsi du

Gizonetan, Luis Alberto Hernando gailendu da, Kilimon Traileko azken irabazlea

Handia egin du Maite Maiora mendarorak, Kanariar uharteretan. Transvulcania ultratrail entzutesuan bigarren egin du, Anna Frost Zeelanda Berriko lasterkariaren atzetik eta sasoi punturik onenean dagoela berretsi du. Zortzi ordu eta hogeita minutu behar izan zituen Maiorak 73 kilometroko ibilbide malkartsua osatzeko, Anna Frostek baino hamar minutu gehiago, eta pozik, "oso pozik", itzuli da Kanarietatik, burua Zegama-Aizkorriko maratoian jarrita duela. Uxue Fraile euskal herritarra sailkatu zen hirugarren, Maiorarengandik hogeita zortzi minutura (8:48).

Gizonezkoetan, Luis Alberto Hernando nagusitu zen, Mendaroko Kilimon Trail lasterketako azkeneko irabazlea [Berea da errekorra ere]. Kilian Jornet munduko espezialista onenaren aurretik sartu zen

Hernando, 6:55:41eko denborarekin. Sage Canadayk egin zuen hirugarren.

Balorazio positiboa

"Lasterketa gogorra izan da oso, batez ere psikologikoki, ez nekielako nire gorputza horrenbeste kilometroko ahalegina egiteko prestatua egongo ote zen, baina bukatu nuen, osorik gainera, eta pozik nago", esan du mendarorak. Ibilbidea bera "ikaragarri polita" izan dela zehaztu du eta ibilbide osoan zehar "babes handia" sentitu duela nabarmendu du. Zegama-Aizkorriko maratoia du hurrengo erronka. Maiatzaren 25ean jokatuko da, eta "konfiantza handia" du bere buruarengan. "Zegamara 14:00etarako iristea da nire helburua. Ordurako iristea lortzen badut, badakit postu ona egingo dudala", gaineratu du. Transvulcanian egindako denborak konfiantza eman diola dio, eta ilusioz dagoela Zegama-Aizkorriko maratoia joka-



Arg.:Fotosu

tzeko. "Orain ikusi beharko da nola erreku-peratzen naizen azkeneko esfortzu onetatik", adierazi du.

Espainiako kadete emakumezkoen eskubaloi txapelketa Elgoibarren jokatuko da asteburuan



Gaur hasi eta igandea bitartean jokatuko da Espainiako kadete emakumezkoen eskubaloi txapelketa, Elgoibarren. Guztira 32 talde lehiatuko dira, zortzi taldetan banatuta. Ligaxka modura jokatuko da lehiaketa, eta talde bakoitzeko irabazleek hurrengo faserako txartela lortuko dute. Etxeko taldeak, Tecnifuellek, Errioxako Sporting Oyonesaren, Nafarroako Malkaitzen eta Kantabriako BM Pereda taldeen kontra jokatuko du. Gaur izango du estreinu-partida, 20:00etan. Bihar, 18:00etan jokatuko du, nafarren kontra, eta domekan, eguerdian, Sporting Oyonesaren kontra.

Herriarteko pilota txapelketako partidak gaur, Ikastolan

Joan zen astean hasi zen Herriarteko pilota txapelketa, eta Elgoibarko Lagunak taldeak Ataunen kontra jokatuko duen estreinu-partida.

2-1 izan zen azken emaitza Ataungoen alde. Nagusien mailako partida irabazi zuten elgoibartarrek 22-10 emaitzarekin, baina jubenil eta kadeteetako bi partidak galdu egin zituzten. Jubeniletan, 22-15 irabazi zuen Ataunek, eta kadeteetan, 22-2.

Itzulerako partidak gaur iluntzean jokatuko dituzte Elgoibar Ikastolako frontoian, 20:00etatik aurrera. Lagunak taldeko pilotariek kontrako emaitza horri aurre egiten ahaleginduko dira.

Unai Arrietak eskubaloia lagako du denboraldi amaieran

Hamazazpi urte egin ditu gorengo mailan jokatzeko



Unai Arrieta eskubaloia jokalaria elgoibartarrak eskubaloia lagatzea erabaki du. Denboraldi amaieran esango dio agur eskubaloia profesionalari, atzo jakitera eman zuenez. Arrietak esan du bere gogoz lagako duela eskubaloia, "gogoeta sakona" egin ondoren, eta "gogotsu eta ilusioz" dagoela ibilbide berriari ekiteko. Hamazazpi urte egin ditu Arrietak eskubaloiko gorengo mailan, eta egindako ibilbideaz "harro" dagoela esan du. Dena dela, jarduera profesionala alde batera lagatzeko unea iritsi dela uste du, beste eremu eta rol batzuetan garatzeko. Eskubaloiak jokalaria eta pertsona bezala hazteko aukera handia eskaini diola nabarmendu du, eta lagun handiak egin dituela. Eskerrak eman dizkie ibilbide honetan lagun izan dituen guztiei. Azken urteak Naturhouse La Rioja taldean egin ditu, baina aurrez, Bidasoa, Arrate edota Kanarietako Cadagua Galdar taldeetan ibilitakoa da.

Concepto Egile areto futbol taldeak bigarren lekuan amaitu du Liga Txapelketa



Santurtziren kontra jokatu zuen Concepto Egilek liga txapelketako azken jardunaldia. Elgoibartarrek bigarren postua eta datorren urterako Espainiako Kopako txapelketarako sailkapena zeukaten jokoan. Azkenean 3-6 izan zen emaitza elgoibartarren alde, eta horri esker, bigarren lekuan amaitu du Concepto Egilek liga txapelketa. Datorren denboraldian, beraz, Espainiako Kopa jokatu du Concepto Egilek.

Jubenilek, Espainiako txapelketa

King-Kong jubenilen taldeak Espainiako kopako final-zortzirenetako partida jokatu du bihar Olaizaga kiroldegian. Valentziako Levante taldearen kontra jokatu dute, eta kanporaketa partida bakarrean erabakiko da. Klubak herritarrei deitu die jubenilak animatzera joan daitezela. 16:00etan hasiko da partida.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zamudio 0 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 2 – Soraluze 1 (Erreg.)
Bergara 3 – Elgoibar 2 (Jub.)
Elgoibar 6 – Aretxabaleta 1 (Kad. A)
Kostkas 0 – Elgoibar 7 (Inf.)
Amaiak Bat 1 – Elgoibar 3 (Inf. Txiki)
Elgoibar 1 – Aloña Mendi 0 (Aleb.)

ESKUBALOIA

Ereintza 20 – Lauko Elg. 25 (Sen. nesk.)
Legazpi 17 – Alkorta Elg. 35 (Sen. mut.)
Urola 26 – Gabaz Elg. 28 (Sen. mut.)
Tolosa 36 – Beristain 18 (Jub. mut.)
Legazpi 16 – Tecnifuelle Elg. 29 (Kad. nesk.)
Pneumax-Txarriduna 33 – Pulpo 32 (Kad. mut.)
Ikus Elg. 23 – Ereintza 11 (Inf. nesk.)
Ereintza 20 – Deca Elg. 21 (Inf. mut.)
San Roke Elg. 18 – Cometel Elg. 15 (Inf. nesk.)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa
Ataun 10 – Elgoibar 22 (Nag.)
Ataun 22 – Elgoibar 15 (Jub.)
Ataun 22 – Elgoibar 2 (Kad.)
Debarroko txapelketa
Lagunak 14 – Soraluze 22 (Nag.)
Udaberri txapelketa
Lagunak 22 – Tartaloetxe 14 (Nag.)
Lagunak 22 – Soraluze 10 (Nag.)

ARETO FUTBOLA

Santurtzi 3 – Concepto Egile Elg. 6 (2B)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17
11:00 Elgoibar – Martutene (Inf. Txiki)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Barixakua, 16
18:15 Sporting Oyonesa – Malkaitz (Kad. nesk.)
20:00 Tecnifuelle Elg. – BM Pereda (Kad. nesk.)
Zapatua, 17
9:30 Bankoa Elg. – Aloña Mendi (Inf. mut.)
10:45 Murgil Elg. – Bera Bera (Kad. nesk.)
12:15 Lauko Elg. – Bera Bera (Sen. nesk.)
18:00 Malkaitz – Tecnifuelle Elg. (Kad. nesk.)
19:45 Sporting Oyonesa – BM Pereda (Kad. nesk.)
Domeka, 18
10:15 BM Pereda – Malkaitz (Kad. nesk.)
12:00 Tecnifuelle Elg. – Sporting Pyonesa (Kad. nesk.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 16
20:00 Lagunak – Ataun (Herriarteko txapelketa)

LANA

ESKAERA

- Emakumea, edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **632 882 532**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Arratsaldez. ☎ **628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile posturako. ☎ **606 354 982**
- Emakumea, adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **626 052 165**
- Emakumea, lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia. Interna edo orduka. ☎ **632 126 668**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka nahiz gauzez. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **620 620 252**
- Neska, umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Gauzez ere bai. ☎ **680 121 252**
- Emakumea, edozein lanetarako prest. ☎ **620 258 708**
- Neska, edozein lanetarako prest. ☎ **633 808 931**
- Neska, edozein lanetarako prest. ☎ **633 244 397**
- Neska, edozein lan egiteko prest. Orduka. ☎ **646 464 300**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai. ☎ **660 511 781 / 943 742 330 (Akel)**

- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Tabernetan zein baserrian egingo luke lan. ☎ **686 077 316**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ **622 201 534**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **622 037 598**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Gauzez edo asteburuetan. ☎ **631 414 397**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **686 420 642**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. ☎ **631 771 590**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **631 724 749**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **632 662 947**
- Mutila eskaintzen da portalak, garajeak edo ganbarak garbitzeko. ☎ **620 710 139 (Aitor)**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **631 343 232**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **636 362 251**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Geriatria ikasketak eta esperientzia handia. ☎ **632 253 170**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **646 931 162**

- Emakumea lanerako prest: adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketak egiteko... Edozein lanetarako prest. ☎ **632 836 130**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Elgoibarren zein Mendaron. Gauzez ere bai. ☎ **619 041 821 / 943 744 033**

ESKAITZA

- Neska gaztea behar da, asteburuetan zerbitzari aritzeko. Elgoibarren bizi eta euskaraz jakitea baloratuko da. Curriculum **Sua** tabernan laga behar da.

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **631 343 232**
- Logela bakarreko etxea alokatzen dut, Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Naiara)**

PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emango nituzke udan. DBH mailako ingelesa ere emateko prest. Umeak ere zainduko nituzke. ☎ **659 024 427**

KINTOAK

- 1949an jaiotakoen bazkaria ekainaren 7an, Sigma jatetxean. 12:30ean argazkia parrokiako arkupean, eta gero luntxa Ibai Ondo jatetxean. 55 euro sartu behar dira La Caixan, maiatzaren 30erako: 2100 4168 75 2100281986.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Jakin nahiko nuke senar-emazteak banantzen diren kasuan bietako batek etxea erosi eta bere izenean eskuratu dezakeen edo ez.


Banandu diren pertsonen dagokien ezkontza-erregimena ondasunen banantetako eraientza bada, ez dago etxebizitza erosteko arazorik, etxe horren jabetza erosi duenarena izango delako.

Aldiz, ezkontza-erregimena irabazpidezko ondasunetan oinarrituta baldin badago, harreman horrek bikote izaera izango du, ez baldin bada bikote hori legez banantzen edo dibortziatzen, edo bietako bat hiltzen ez bada. Egoera horretan, irabazpidezko ondasunen erregimen hori bertan behera utzi arte, bietako batek erosten duen edozein ondasun biena izango da, eta bikotea legez behin betiko banantzen denean, ondasun hori ere bien artean banatu beharreko gehituko zaie. Horrenbestez, bi pertsona horiek aldi baterako edo behin-betiko banantzen badira, bietako edozeinek erositako ondareak bienak izango dira. Bi pertsona denbora luzez bananduta egon direnean gertatu izan da epaileak epealdi horretan erositako ondasuna soilik eroslearena dela ebaztea, baina ez da ohikoena.

GOMENDIOA: Egoera hauek erregularizatzea litzateke onena, horretarako ezkontza-ituna (adostasuna dagoen kasuetan) edo eta senar-emazteen banatze agiria aurkeztuta.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Haitz**, zure seigarren urtebetetzean. Primeran pasatu genuen gonbitean. Etxekoan, eta bereziki, Maddalenen partez.



• Zorionak, **Maria**, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Mari Kruzil** Zure familiakoen partez, ondo pasa zure urtebetetze egunean.



• Zorionak, **Alain**, bihar 6 urte egingo dituzulako. Aner, ama eta aitarren partez.



• Zorionak, **Alain**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Etxekoan, eta bereziki arreba Ainararen partez. Ondo pasa, txapeldun.



• Zorionak, **printzesa**, asteartean 8 urte bete zenuelako. Muxu asoko, familiakoen partez.



• Zorionak, **June**, asteartean 11 urte bete zenuelako. Familia osoaren partez, eta bereziki Noraren partez.



• Zorionak, **Unax**, 10 urte bete dozuz, eta mutil haundixa egin zara! Muxu haundi bat, danon partez.



• Zorionak, **Garazi**, asteazkenean 5 urte egin zenuelako. Etxeko printzeza txikiari, muxu haundi bat. Etxekoek, eta bereziki, Malenek.



• Zorionak, **Elala**, zure bosgarren urtebetetzean. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Sabin eta Teo**. Hilaren 21ean 5 urte beteko dituzulako zuk, Sabin, eta hilaren 12an 2 urtetxo egin zenuelako zuk, Teo. Muxu bana, familia osoaren partez.




• Zorionak, **Adur eta Ane**, igandean 5 urte beteko dituzuelako. Ondo pasa.



• Zorionak, **Elsa**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, etxekoan partez.




• Zorionak, **bikote**. Pasatu da beste urte bat. Oso ondo pasatu! Etxekoan partez.



Mundakako udalekuetarako
izena emateko epea
maiatzaren 23ra arte luzatu dugu.

Hurrengo ostiralean
Ludotekako V. Aste Nagusia hasiko da!
Anima zaitetz!





Konfiantzan IKASTOLA

HH 0-1 ean
irailean eta urrian hasteko
matrikula zabalik
maiatzaren 19tik 30era

elgoibar ikastola

**Ikastola ezagutzeko aurkezpen bilera
maiatzaren 19an, 18:00etan**



16 barixakua

Gure Esku Dago

17:00-20:00 Informazio mahaia. Gure Esku Dago ekimenekoek metroak salduko dituzte, Kalegoen plazan.

Gure Esku Dago

18:30 Informazio mahaia Mendaroko Gure Esku Dago ekimenekoek metroak salduko dituzte, Herriko Enparantzan.

Bideo forum

21:30 'Mi vida sin mi' Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik gidatuko du saioa.

Musika

22:30 Frank Sinatra Frank Sinatrari tributoa egingo diote, Txarriduna jatetxean.

17 zapatua

Musika

12:15 Txistularien alardea Kalejira.
13:00 Kontzertua Kalegoen plazan.

LAS LETRAS GALEGAS

16, barixakua

19:30 Jaien inaugurazioa Aita Agirre plazan.
Ondoren, Galiziako muskuiuen dastaketa, doan.
20:00-21:00 Dantzaldia Ritmo Joven orkestrarekin.
23:00 Dantzaldia Ritmo Joven orkestrarekin.

17, zapatua

11:00 Galizako produktuen dastatzea
12:00 Kalejira Laudioko Espalladoiro taldearekin.
13:00 Bermut-dantzaldia
18:30 Dantza ikuskizuna Haritz dantza taldeak eta Espalladoiro taldeak hartuko dute

parte. Kalegoen plazan.
20:00 Galizako produktuen dastatzea
20:00-21:00 Dantzaldia Ritmo Joven orkestrarekin.
23:00 Dantzaldia

18, domeka

11:00 Galizako produktuen dastatzea

11:30 Meza nagusia

Parrokian, hildako bazkideen omenez. Santurtziko Corxa Ariños Galegos gaita taldeak eta abesbatzak hartuko dute parte.
Ondoren, Kalejira Corxa Ariños Galegos taldearekin.
14:30 Bazkaria Galiza Kultur Etxean.

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 GUARDIAK

09:00 - 22:00

16 Garitaonandia
17 Etxeberria
18 Etxeberria
19 Fernandez
20 Garitaonandia
21 Zabaleta
22 Barrenetxea
23 Ibañez

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera

Yudego

24:00 - 09:00

Azkue (Eibar)
Toribio Etxebarria 4
(943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko ambulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«Ida»

16, barixakua: 22:15
17, zapatua:
19:00/22:15* (VOS)
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30

«Ateak zabalduz» (Ongarri zinekluba)

22, eguena: 21:30

OUTLET Ferpi

moda

**Maiatzaren 14tik aurrera
egun batzuetarako zabalik**

Trajeak %60
Soinekoak %50
Kamisetak 15€

Eskaintza handiagoa dendan. Zatoz!
San Bartolome 3, behean, gaude.

M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOA

Urkizu, 13

943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA
Eibarko
Centro Médico
Osasundegia



cmeibar@hotmail.com

www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA
eskaintzeaz gain, profesionaltasunari
eta pazientearekiko tratu atseginari
eusten jarraituko diogu.



ESKERTZA

JOSE IGNACIO ULACIA ETXEBERRIA

*Laster arte ezpainetan
utzi gaituzu penetan,
orain gure ametsetan
bizirik zaude benetan
zeruko izarretan.*

Familiakoak

2014ko maiatzaren 10ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

AGUSTINA BASTARRIKA LARRAÑAGA

"Manuel Leizaberen alarguna"

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

2014ko apirilaren 18an hil zen, 86 urte zituelarik. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

CANDI ARREGUI BASTIDA

*Emazte, ama, lagun Candi,
lurrean lore zinan
lore garbi lirain
zeruan izar zera,
izar argi orain.*

Familiakoak

2013ko maiatzaren 16an hil da, 73 urte zituela. I.urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 17an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA

*250 LAGUNENDAKO
JANGELA*



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaeta Jauregia

Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

www.restaurantelasa.es

BERGARA

